Araugintza
II. ikastaroa

1. saioa
Aditz Sintagma

Erantzun orriak

EUSKARAREN IRAKASKUNTZARAKO
BALIABIDE ZENTROA

Mokarte parkea z.g.
31620 Uharte. Nafarroa
948 361093 Fax: 948 361092

Aurkibidea

Aditz Sintagma. Ariketa orokorra 3
ARAUAK 4
"-arazi" 4
Agintera 6
Indikatiboa 7
Baldintza 7
Aditzen aspektua 8
Aditzoina 9
"Nahi" eta "behar" 10
OHIKO AKATSAK 11
Aditz laguntzaile batzuk 11
Zenbait aditzen erregimena 12
Aditz nahasgarriak 14
Akatsak 15

Aditz Sintagma. Ariketa orokorra

1. *Hauetan, zein da zuzena?*
   a) Hau jakin izan banu, lehenago etortzen saiatu nintzatekeen.
   x) Hau jakin izan banu, lehenago etortzen saiatuko nintzen.
   c) Hau jakin izan banu, lehenago etortzen saiatuko nintzateke.

2. *Zein da zuzena?*
   a) Umetan dilistak jan arazten zizkidaten.
   b) Umetan dilistak janerazten zizkidaten.
   x) Umetan dilistak janarazten zizkidaten.

3. *Hauetan, zein da zuzena?*
   a) Esaidazu zergatik ez zinen etorri atzo bazkarira.
   x) Eman iezazkiguzue egindako idazlan guztiak.
   c) Eman iezaizkiguzue egindako idazlan guztiak.

4. *Zein da zuzena?*
   x) Arratsaldeko lau eta erdietan irteten gara ikastetxetik.
   b) Arratsaldeko lau eta erdietan irtetzen gara ikastetxetik.

5. *Zein da Euskaltzaindiak gomendatzen duena?*
   a) Etxera joan behar gara, berandu da eta.
   x) Etxera joan behar dugu, berandu da eta.

6. *Zein da Euskaltzaindiak gomendatzen duena?*
   a) Autoz joan nahi gara, berandu samar da eta.
   b) Autoz joan gura gara, berandu samar da eta.
   x) Autoz joan nahi dugu, berandu samar da eta.

7. *Irakasleak "Kixote Mantxako" liburu osoa...*
   a) irakurtarazi digu.
   x) irakurrarazi digu.
   c) irakurri arazi digu.
   d) irakur arazi digu.

8. *Neronek ere..... lehendabizikoan gidatzeko karneta.*
   x) lortzen ahal dut
   x) lor dezaket
   x) lortu ahal dut

9. *Egunero..... egunkaria aitari.*
   a) erosi behar diot
   b) erosiko behar diot
   x) erosi behar izaten diot

ARAUAK

“-arazi”

A.

1. Aunque no queríamos, nos han hecho entrar.
   Nahi ez bagenuen ere, sarrarazi gaituzte.
2. Les habéis hecho venir contra su voluntad.
   Gogoz kontra etorrarazi dituzue.
3. El portavoz del gobierno ha hecho ponerse en pie al periodista.
   Gobernuko eledunak kazetaria zutiarazi du.
4. Me habéis hecho fotocopiar el libro entero.
   Liburu osoa fotokopiarazi didazue.
5. El inspector nos ha hecho juntar dos grupos.
   Ikuskariak bi talde batuarazi / elkarrarazi dizkigu.

B.

- Gorriak ikusi arazi naute.
  Gorriak ikusarazi dizkidate
- Urteetan egonarazi diote Anttoni karguan.
  dute Antton
- Genekizkien abesti guztiak kantaarazi gintuzten.
  kantarazi dizkigute
- Mikeli eta bioi bakarrik isilarazi ziguten.
  Mikel eta biok bakarrik isilarazi gintuzten.
- Etorri zara, baina ez nik etorriarazi dizudalako.
  etorrarazi zaitudalako
- Horman idatzitakoa gaur goizean ezabarazi diote Anderri
  Ongi
- Laster oherarazi diote gaixoari.
  dute gaixoa
- Izugarri sufriarazi diote gure aitari.
  Ongi

C.

- *Bota:* botarazi
- *Erori:* erorarazi
- *Igorri:* igorrarazi
- *Ihardetsi:* ihardetsarazi
- *Hautsi:* hautsarazi
- *Utzi:* utzarazi

D.

1. Zein da zuzena euskara batuan?
   x) Emanarazi
   b) Eman arazi
   c) Eman erazi
   d) Emanerazi

2. Zein da okerra euskara batuan?
   a) Sorrarazi
   b) Agerrarazi
   c) Adierazi
   x) Erostarazi

3. Gurasoek etxean gerarazi...
   a) ziguten
   x) gintuzten
   c) digute
   d) zaizkigu

4. Zein da zuzena?
   a) Gurasoak eskolara joanarazi zizueten.
   b) Gurasoek eskolara joanarazi zizueten.
   c) Gurasoek eskolara joanarazi zenituzten.
   x) Gurasoek eskolara joanarazi zintuzteten.

5. 08:30ean _____ _____ seme-alabak.
   x) jaikiarazten / ditugu
   b) jaikarazten / gaituzte
   c) jaikiaratzen / genituen
   d) jaikiaratzen / gintuzten

E.

Gorputz Heziketako irakasleak (erosi) erosarazi zien / erosarazitako arropa erosoa jantzita heldu ziren 5. mailako ikasleak. Lehendabizi, berotze-ariketak egiten jarri zituen eta, horretarako, kiroldegiaren inguruan korrika (egin) eginarazi zien. Egia esateko, gogotik (bota) botarazi zien izerdia! Ondoren, lurrean (etzan) etzanarazi zituen eta abdominalak (egin) eginarazi zizkien. Joanes izugarri nekatu zen eta, leher egina zegoela adierazi zionean, aldageletara bidali zuen. Berri horrek izugarri poztu zuen eta poztasunak egundoko saltoa (egin) eginarazi zion.

Hasteko, irakasleak denok (altxatu) altxarazi gaitu aulkietatik joko bat egin behar dugula esanez. Jokoa baino gehiago, tortura izan dela iruditu zait; izan ere, ondoko gelara (joan) joanarazi gaitu eta hango ikasleen aurrean oihu (egin) eginarazi digu. Hori guztia gutxi balitz bezala, gure ikasgelara itzuli eta klima aldaketari buruzko idazlana (egin) eginarazi digu. Bukatzean, etxean egindako ariketak eman dizkiot zuzentzeko eta, gaizki egin ditudanez gero, guzti-guztiak (errepikatu) errepikarazi dizkit. Horrek negar (egin) eginarazi dit.

Agintera

1. Ez zaitezte (zuek) horren alferrak izan.
2. Ez biezagute / diezagutela (haiek guri) herrian bizitzeko gogoa ken.
3. Igo zaitez (zu) etxera eta jaits bitez / daitezela (haiek).
4. Etzan zaitezte (zuek) ohean eta egin ezazue lo lasai.
5. Ez zaitezte berandu etor, beti zain izaten gaituzue eta.
6. Eraman itzazue (zuek) eskutitz hauek postetxera.
7. Bakoitzak hel biezaio / diezaiola bere lanari.
8. Joan zakizkio (zu hari) eta berriak eman iezazkiozu.
9. Ordain iezazkiguzue (zuek guri) zorrak lehenbailehen.
10. Utz iezadazue niri zuekin joaten.
11. Galde iezaiozu (zuk) irakasleari ea bihar zer eginen dugun.
12. Ez ezan hitz egin, ez badun hanka sartu nahi.

Indikatiboa

1. Ni Aneri azaltzen ari natzaio baloia nora bota behar duen.
2. Baloia putzura erori zitzaizuen eta jolastu gabe gelditu zineten.
3. Guri argiak itzali zitzaizkigunean, lotara joan ginen.
4. Niri gertatzen zaizkidanak ez zaizkio beste inori gertatzen.
5. Ni zuri atzetik segika etorri nintzaizun eta zu ez zinen konturatu ere egin.
6. Nondik ekarri dizkiezue / zenizkieten (zuek-haiei) sagar ustel horiek?
7. Sarak oso pozik hartuko gaitu / gintuen etxean Mikel eta ni; baina ez Mikelek, ez nik, ez dugu / genuen joateko asmorik.
8. Heldu den hilean etorriko zaizkigu guri Argentinako lehengusuak.
9. Susto ederra eman didazue / zenidaten (zuek niri) mozorro itsusi horrekin.
10. Atzo Urkok betaurrekoak gorde zizkidan (niri) maisuaren tiraderan.

Baldintza

1. Laguna bisita egitera etorri balitzaizu (zuri), zu izugarri poztuko zinen / zinatekeen.
2. (Zuk) lanetik goiz irten eta astia izango bazenu operara joango zinateke.
3. Nik zuei dirua eman banizue, zuek erosiko al zenuten / zenuketen telebista berria?
4. Gurasoek zuri aholku onak eman balizkizute, zuk aintzat hartuko ote zenituen / zenituzkeen?
5. Guk zuri txanpon batzuk eskatuko bagenizkizu, zuk emango al zenizkiguke?
6. Zuk gu hobeto ezagutuko bagintuzu, ez zeniguke ematen diguzun tratua emango.
7. Festetan lagunek gonbidatu (izan) banindute, neuk ere gonbidatuko nituen / nituzkeen haiek.
8. Aitziberrek frantsesa irakatsi izan baligu, hagitz ongi moldatuko ginen / ginatekeen Paris alde horretan.

Aditzen aspektua

1. Estoy hablando	hizketan ari naiz, mintzatzen ari naiz
2. Hablo	hitz egiten dut, mintzatzen naiz
3. Hablaré	hitz eginen (egingo) dut, mintzatuko naiz
4. He hablado	hitz egin dut, mintzatu naiz
5. Hablé	hitz egin nuen, mintzatu nintzen
6. Puedo hablar	hitz egin (egiten) ahal dut, mintzatzen ahal naiz, hitz egin dezaket, mintza naiteke
7. Podré hablar	hitz egin ahalko dut, mintzatu ahalko naiz, hitz egin ahal izanen dut
8. He podido hablar	hitz egin ahal izan dut, mintzatu ahal izan naiz
9. Pude hablar	hitz egin ahal izan nuen, mintzatu ahal izan nintzen
10. Podría hablar	hitz egin ahalko (ahal izango) nuke, mintzatu ahalko (ahal izango) nintzateke
11. Podía hablar	hitz egin ahal nuen, mintzatzen ahal nintzen, hitz egin nezakeen, mintza nintekeen
12. ¡Habla!	hitz egin ezazu! mintza zaitez!
13. Si hablara	hitz eginen (egingo) banu..., mintzatuko banintz...
14. Si hubiera hablado	hitz egin (izan) banu..., mintzatu (izan) banintz...
15. Hablaría	hitz eginen (egingo) nuke, mintzatuko nintzateke
16. Habría hablado	hitz eginen (egingo) nuen (nukeen), mintzatuko nintzen (nintzatekeen)

Aditzoina

Urtu	ur/urtu
Loditu	lodi/loditu
Hoztu	hotz/hoztu
Hustu	huts/hustu
Murriztu	murritz/murriztu
Zorroztu	zorrotz/zorroztu
Handitu	handi/handitu
Gorritu	gorri/gorritu
Zuritu	zuri/zuritu
Lotsatu	lotsa/lotsatu

Itxi	Itxi
Iritzi	Iritz/iritzi
Lotu	Lot
Eutsi	Euts/eutsi
Oroitu	Oroit
Ohartu	Ohart/ohartu
Lagundu	Lagun/lagundu
Bat	Bat/batu
Ezagutu	Ezagut

“Nahi” eta “behar”

1. Esta tarde voy a ir al cursillo de cocina, y para ello tengo que comprar un delantal.
   Gaur arratsaldean sukaldaritza ikastarora joan behar dut, eta horretarako mantala erosi behar dut.

2. Queríamos ir en el tren de alta velocidad, pero, finalmente, tuvimos que viajar en autobús.
   Abiadura handiko trenean joan nahi genuen, baina, azkenik, autobusez bidaiatu behar izan genuen.

3. Si tuviéramos que estar de pie tanto tiempo, se nos dormirían las piernas.
   Hainbeste denboran zutik egon beharko bagenu, hankak inurrituko litzaizkiguke.

4. Quieres seguir, pero no puedes porque estás muerto de sed.
   Jarraitu nahi duzu, baina ezin duzu, egarriak itotzen zaudelako.

5. -¿Qué vais a hacer esta tarde? -Pues, no lo sé. La mayoría queremos ir al monte, pero Ander prefiere montar a caballo.
   -Zer egin behar duzue gaur arratsaldean? –Ba, ez dakit. Gehienok mendira joan nahi dugu, baina Anderrek nahiago du zaldiz ibili.

6. En los entrenamientos, primero suelo tener que andar una hora en bici; y, luego, suelo tener que nadar media hora.
   Entrenamenduetan, lehendabizi bizikletaz ibili behar izaten dut; eta, gero, ordu erdiz igeri egin behar izaten dut.

7. Queríamos salir antes de las seis, pero no sé si podremos.
   Seiak baino lehen atera nahi genuen, baina ez dakit ahal izango dugun.

8. Quieren volver a casa, pero van a tener que dormir aquí porque está nevando cada vez más.
   Etxera itzuli nahi dute, baina hemen egin beharko dute lo, gero eta elur gehiago ari baitu.

OHIKO AKATSAK

Aditz laguntzaile batzuk

1. Si fuerais, lo pasaríais de primera.
   Joango bazinete, primeran pasatuko zenukete.
2. Si hubierais venido, no habría pasado nada.
   Etorri (izan) bazinete, ez zen / zatekeen ezer gertatuko.
3. Si lo hubiera sabido, no habría ido.
   Jakin izan balu, ez zen / zatekeen joango.
4. Él no lo habría hecho así.
   Berak ez zukeen honela eginen.
5. Gracias a tí; si no, no habrían venido.
   Zuri esker; bestela, ez ziren / ziratekeen etorriko.
6. Creo que lo aceptaría.
   Onartuko lukeela uste dut.
7. No sé si se atrevería.
   Ez dakit ausartuko litzatekeen.
8. Tendríais que andar con cuidado.
   Kontuz ibili beharko zenukete.
9. Ellos no lo harían nunca.
   Haiek ez lukete inoiz egingo.
10. No sería de extrañar.
    Ez litzateke harritzekoa.
11. Esto es lo que tú me dejaste.
    Hauxe da zuk utzi zenidana.
12. Creía que nos acompañarías.
    Lagunduko zenigula uste nuen.

Zenbait aditzen erregimena

1. Irabazi arte _____
    - x) borrokatuko gara
    - b) borrokatuko dugu
    - x) borroka egingo dugu
    - d) burruka egingo dugu
    - x) borrokan egingo dugu

2. Lehertu arte _____
    - x) dantzatu ginen
    - b) dantzatu genuen
    - x) dantza egin genuen
    - x) dantzan egin genuen
    - e) dantzatu ginen arin-arina
    - x) dantzatu genuen arin-arina

3. Zein dira zuzenak?
    - x) Damu dut gaztetan horrela ibili izana
    - x) Damutu zait gaztetan horrela ibili izana
    - x) Damutzen naiz horrela ibili izanaz

4. Baratzean _____
    - x) jolastu dira
    - b) jolastu dute
    - x) jolasean ibili dira

5. Hamabost milioi _____ Tuterako etxeak
    - x) balio du
    - b) balio zaigu
    - c) balio zaizkigu

6. Hamabost milioi _____ Tuterako etxea
    - a) kostatu du
    - b) kosta du
    - x) kostatu zaigu
    - x) kosta zaigu
    - e) kostatu digu
    - f) kosta digu

7. Izugarri _____ dirua irabaztea
    - x) kostatzen da
    - b) kostatzen du

8. _____ ni harrapatzea!
   a) Kostako dizu
   x) Kostako zaizu
   c) Kostatuko dizu
   x) Kostatuko zaizu

9. Lanean _____ egun osoan.
   x) jardun da
   x) jardun du
   c) ihardun da
   d) ihardun du

10. Zer, _____ ala ez? Nik uste, ez dabilela.
   a) funtzionatzen da
   x) funtzionatzen du
   x) badabil
   d) dabil

11. Umeek ez _____ batere molestatzen.
   a) didate
   x) naute
   c) zaizkit

12. Herriaren erdi-erditik _____ mozorrotuta.
   a) pasatu dugu
   x) pasatu gara
   c) pasa dugu
   d) pasa gara

13. Gaur primeran _____ tabernaz taberna.
   a) pasatu gara
   x) pasatu dugu
   c) pasa gara
   d) pasa dugu

14. Nik dakidala, ez _____ horrelakorik.
   x) da existitzen
   b) du existitzen

15. Egunero bostetan _____ lanetik.
   a) irtetzen da
   b) irtetzen du
   x) irteten da
   d) irteten du

16. Bi ordu _____ filmak.
   x) iraun du
   b) iraun ditu

Aditz nahasgarriak

1. Hoy me pondré el vestido rojo.
   Gaur soineko gorria jantziko dut.

2. Me voy a poner las gafas porque no veo nada.
   Betaurrekoak jantziko ditut, ez dut ezer ikusten eta.

3. Quítate la ropa que la tienes toda mojada.
   Erantz ezazu arropa, bustita duzu eta.

4. Nos quitaremos los zapatos para no hacer ruido.
   Oinetakoak erantziko ditugu, zaratarik ez egiteko.

5. Búscalo hasta encontrarlo porque no te perdono el haberlo perdido.
   Bila ezazu aurkitu arte, ez baitizut barkatuko galdu izana.

6. Lo he buscado por todas partes y no lo he encontrado.
   Bazter guztietan bilatu dut eta ez dut aurkitu.

7. Estás equivocado, eso no es así.
   Oker zaude, hori ez da horrela.

8. Nos hemos equivocado en el segundo cruce y hemos salido a la misma carretera.
   Bigarren bidegurutzean okertu egin gara eta errepide berera atera gara.

9. Esta cuchara está torcida.
   Goilare hau okertuta dago.

10. Ese cuadro está torcido.
    Koadro hau oker dago.

11. La situación de Oriente Próximo ha empeorado.
    Ekialde Hurbileko egoerak okerrera egin du.

12. El ministro ha negado eso
    Ministroak ukatu egin du hori.

13. Me denegó su ayuda.
    Laguntza ukatu zidan.

14. Ha renunciado a la plaza de auxiliar administrativo
    Uko egin dio administrari laguntzaile postuari.

Akatsak

Gure ikasleek maiz botatzen dituzte ondoko esaldien antzekoak. Eman itzazu euskal ordain jatorragoak.

OKER!!!!!!!!!!	ZUZEN
- Dago Eneko?	- **Hor al da Eneko?**
- Daude zure aitak?	- **Gurasoak hor al dira?**
- Badago zure aita?	- **Etxean al da(go) zure aita?**
- Badago hemen nire tutorea?	- **Hemen al da(go) nire tutorea?**
- Dago esnea?	- **Ba al da(go) esnerik?**
- Duzu dirua?	- **Baduzu dirurik? Ba al duzu...?**
- Dakizu abesti hau?	- **Badakizu abesti hau?**
- Zaude urduri?	- **Urduri al zaude?**
- Dago ongi esanda?	- **Ongi esanda (al) dago?**
- Dago guay!	- **Primeran dago! Ederki dago!**
- Dago hortik.	- **Hor dago / hor dabil**
- Dabil zurekin?	- **Zurekin (al) dabil?**
- Zaude nekatuta ala?	- **Nekatuta (zaude), ala?**
- Naiz Eneko. Dago Marian?	- **Eneko naiz. Hor al da(go) Marian?**
- Gara onenak! Gaude pozik!	- **Onenak gara! Pozik gaude!**
- Gara la letxe!	- **Apartekoak gara!!**

- Zara gure laguna?	- **Gure laguna zara?**
- Zara Edurneren neba?	- **Edurneren neba al zara?**
- Joaten gara kalera?	- **Joango gara kalera?**
- Goaz kontzertura?	- **Joango gara kontzertura?**
- Goaz hemendik!	- **Goazen hemendik!**
- Jolasten dugu futbolera?	- **Jokatuko dugu futbolean?**
- Egiten dugu borota?	- **Piper eginen dugu?**
- Unairi ikusi diot kalean.	- **Unai ikusi dut kalean.**
- Mireni agurtu diogu.	- **Miren agurtu dut.**
- Aitak autoan eraman dit.	- **Aitonak eraman nau autoan.**
- Elkarri ikusi diogu.	- **Elkar ikusi dugu.**
- Zoroa zaude, ala?	- **Zoratuta zaude, ala?**
- Leloa zaude, ala zer?	- **Lelotuta zaude, ala zer?**
- Urdurik zaudete, ala?	- **Urduri zaudete, ala?**
- Tristeak zaudete, ezta?	- **Triste zaudete, ala?**
- Nekatutak gaude gaur.	- **Gaur nekatuta gaude.**
- Harritutak gaude zurekin.	- **Harrituta gaude zurekin.**
- Beti aspertutak zaudete.	- **Beti aspertuta zaudete.**